Haatik, eraikuntzan nahastutako agenteek (fabrikatzaileek, preskriptoreek, eraikitzaileek, erabiltzaileek, kalitatearen agintaritzaren autonomikoek, etab.) zeresan handia dute EB markaketa ahalik eta gehien eta azkarren zabaltzeko orduan eta, xede horrekin, hainbat jarduerak osagarri edo paralelo aurrekusi dira.

EB markaketa zer den, nola funtzionatzen duen, prozesuan parte hartzen duten erakundeak zeintzuk diren, eta abar ezagutzera emateko, 2007ko otsailaren 28an Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategian (Gasteizen) "EB markaketa eraikuntzaren sektorean" izeneko jardunaldiak garatu ziren. 88 lagun bertaratu ziren, herri-administrazio, kontsultoretza, kalitate-kontrolerako laborategi, eraikuntzaren sektoreko enpresa, gremioen elkarte eta aparejadoreen elkarteetako ordezkariak guztiak.

Jardueretan ondoren zerrendatutako pertsonen parte hartu zuten:

- Sonia Samaniego, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendaria.

1. taula. EB markaketa ziurtatzen duen dokumentazioa

| Produktuari esleitutako ebaluazio-sistema | Fabrikatzailearen zereginak | | EB markaketa (etiketatua) | EBren adostasun-ziurtagia |
|---|--|---|---|---------------------------|
| | Ereduzko hasierako entsegu (EHE) | Produktuaren kontrola fabrian (PKF) | | |
| 1+ y 1 | Izendatutako ziurtagien-erakundeak luzatutako produktuaren ziurtagia (*) | | Bezeroari edo erabiltzaileari iritsi behar zaio | Bai (*) |
| 2+ y 2 | Fabrikatzaileak egindako EHEen txostena (*) | Izendatutako ikuskapen-erakundeak luzatutako PKFren ziurtagia (*) | Bezeroari edo erabiltzaileari iritsi behar zaio | Bai (*) |
| 3 | Izendatutako laborategiak luzatutako EHEen txostena (*) | Fabrikatzaileak egindako PKFren egiaztagia (*) | Bezeroari edo erabiltzaileari iritsi behar zaio | Bai (*) |
| 4 | Fabrikatzaileak egindako EHEen txostena (*) | Fabrikatzaileak egindako PKFren egiaztagia (*) | Bezeroari edo erabiltzaileari iritsi behar zaio | Bai (*) |

(*) Fabrikatzaileak ez ditu nahitaz aurkeztu behar agiri hauek produktua merkaturatzeko, baina aipatutako dokumentuak eskatu ahal zaizkio EB markaketa behar den bezala betetzen dela ziurtatzeko (arrazoizko zalantzarik badago).

aurkibidea

1. Jardunaldia: EB markaketa
2. Eraikal zortzi deialdiko laguntzak erabaki dira
3. Jardunaldiak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea.
4. Birgaitze-obretan eraginkortasun energetikoak duen garrantziaren inguruko hausnarketa-lantegiaren emaitzak.
5. Prozesuen araberrako kudeaketa arkitektura-estudioetan.
6. Eraikuntza-sektoreko mikroenpresetarako gida ekonomiko-finantzariora.
7. Itaun postontzia.

- Luis Alonso Caballero, Industria Ministerioari Industria Kalitate eta Segurtasunerako atalburua.

- Andrés Blázquez, AENOREko Produktuaren Ziurtagierako adarreko zuzendaria.

- José Antonio Sánchez de Sancha, Eraikuntzako Produktuen Ziurtagierako negozio-gerentea. LABEIN-Tecnalia.

- Gorka Elorza. Arkitektoa. SOCOTEC

Horiez gain, Sainsa Taldea, Cementos Lemoña Taldea eta Cementos Rezola enpresek parte hartu zuten jardunaldietan eta esparruan duten esperientziaren berri eman zuten.

Jardunaldietara bertaratu ziren pertsonen balorazio altua egin dute jardunaldiei buruz galdetzean, eta azpimarratzekoak dira EB markaketa ezagutzeko eskaini diren eduki interesgarriak eta ikuspegi zabala eta jardunaldietan aurkeztutako txostenen aniztasuna.

EB markaketa:

Zuzentarau berriaren esparruan, fabrikatzaileek funtsezkoak diren bi zeregin bete behar dituzte EB markaketa lortzeko, hain zuzen ere:

- Produktuekin hasierako entseguak egin.

- Fabrikako produkzioa kontrolatzeko sistema bat ezarri.

Produktu bakoitzaren egokitasuna erabakitzeke jarraitzen den ebaluazio-sistema kontuan hartuta, bi zeregin horien gaineko ebaluazioa horretarako izendatutako erakundeek egin dezakete, edota fabrikatzaileak berak egin dezake (ikus 2. taula), hor-taz, EB markaketaren ziurtagiriak desberdinak izango dira (1. taula).

Honakoak dira ebaluazioa egiteko aukeratu-tako erakundeak:

- Ziurtapen-erakundeak (produktua ziurtatzen dute, produkzioaren kontrola fabrian eta eredu-zko hasierako entseguak barne hartuta).

- Ikuskapen-erakundeak (fabrikatzaileak fabrian egiten duen produkzioaren kontrola ziurtatzen dute).

- Entsegu-laborategiak (hala badagokie, produktuen eredu-zko hasierako entseguak egiten dituzte).

Aipatutako erakunde guztiak Europako Kontseiluko kideak diren estatuek aukeratz-zen eta izendatzen dituzte eta zeregin jakin batzuk burutzeko ahalmena ematen zaie.

Kontrol teknikorako erakundeak:

Bestalde, Kontrol Teknikorako Erakundeak (KTE) izeneko agenteak bereiz daitezke prozesuan. Erakunde horiei dagokie obren exekuzioa zuzentzea eta kontrolatzea. Hala ere, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak (EAL) ez ditu aipatu erakundeak aitortzen. Hori dela eta, aseguru-etxeek aitortzen dituzte KTEak, aldiro egiten dituzten auditorien bidez, eta bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituzte.

KTE baten lana aseguru-etxei kontratatatu diren obren arrisku-mailaren berri ematean datza. Horrela, KTEak sustapenaren prozesu osoan parte hartzen du: lehenik eta behin, proiektuen auditoria egiten du eta, ondoren, obraren exekuzioa kontrolatzen du. Eta, horretarako, aldiro-aldi-ero obra-

2. taula. Adostasun-ebaluazioa. Agenteek bete beharreko zereginak.

| ADOSTASUN EBALUAZIOA EPZren ARABERA | | | | | | |
|--|------------|----|-----------|----|-----|----|
| EPZren ARTIKULUEN ARABERA | I | | II1 | | II2 | I3 |
| ZIURTAPENA | ZIURTAPENA | | ADOSTASUN | | | |
| ADOSTASUNA ZIURTATZEKO SISTEMA | 1+ | 1 | 2+ | 2 | 3 | 4 |
| EREDUZKO HASIERAKO ENTSEGUA | EL | EL | F | F | EL | F |
| FABRIKAN HARTUTAKO LAGINEN ENTSEGUA | F | F | F | | | |
| FABRIKAN, MERKATUAN EDO OBRAN HARTUTAKO LAGINEN AZTERKETA ENTSEGUAK | LE | | | | | |
| LOTEKO LAGINEN ENTSEGUA | | | | | | |
| PRODUKZIOAREN KONTROLA FABRIKAN (PKF) | F | F | F | F | F | F |
| FABRIKAKO ETA PKFren HASIERAKO IKUSKAPENA | IE | IE | IE | IE | | |
| PKFren ETENGABEKO ZAINZA, GAINBEGIRAKETA ETA EBALUAZIOA | IE | IE | IE | | | |
| PKFren ZIURTAPENA ETENGABEKO ZAINZA, GAINBEGIRAKETA, ETA EBALUAZIOAREN OINARRIAREN ARABERA | | | IE | | | |
| EBko ADOSTASUN ZIURTAPENA/AITORPENA | ZE | ZE | F | F | F | F |

ZE: ZIURTAPEN ERAKUNDEA, IE: IKUSKAPEN ERAKUNDEA, EL: ENTSEGU LABORATEGIA, F: FABRIKATZAILEA

ikuskapenak egiten ditu, kasu bakoitzean ezar daitezkeen araudia betetzen den eta proiektua behar den bezala garatzen den egiaztatzeko. Kalitatea kontrolatzeko tresnak Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta eraikuntzako produktuei buruzko zuzentaraua (EB markaketa) dira.

Exekuzioa kontrolatzeko fasean, proiektugileak eskatzen dituen materialen kalitatea kontrolatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten da. KTEk obran egiten dituen ikuskapenetan, eraikuntzaren zati batzuen oinarritzko egitura-segurtasunarekin erlazionatutako obrak behar den bezala egiten direla baieztatu behar du, bai eta zati horietan erabiltzen diren materialek ezar daitezkeen arauetan zehaztutako gutxienezko baldintzak betetzen dituztela ere.

EB markaketa & AENORen N marka:

Produktuaren marka boluntarioen (AENORen N marka) eta EB markaketaren arteko desberdintasunei dagokienez, bigarrena nahitaezkoa da zuzentarau batek eragiten dituen produktuen kasuan, eta merkaturako produktu guztiek

bete beharreko gutxienezkoa da gainera; AENORen N marka, berriz, borondatezkoa da eta ziurtapen-sistema baten arabera ematen da berau erabiltzeko eskubidea.

EB markaketa ez da kalitate-marka bat. EB markaketa Europar Batasunean produktuen joan-etorri askea ahalbidetzen duen markaketa da, eta bera gabe ezinezkoa da produktu bat barne-merkatuan merkaturatzea. Produktu batek fabrikatzaileari ezarritako erkidegoko baldintza guztiak betetzen dituela adierazten du EB markaketak.

Hala ere, AENORen N marka borondatezkoa da, eta produktu, prozesu edo zerbitzu batek berariazko arau bat edo agiri bat betetzen duela ziurtatzeko balio du.

Enpresen betekizun gehigarriak:

Borondatezko markak lortu dituzten produktuak dituzten enpresek ez dute aldaketa eta ahalegin handirik egin behar EB markaketa egokitzeke, izan ere, borondatezko marka horien eskakizun-maila EB markaketarena baino altuagoa da produktuei eta fabrikatzaileei dagokienez, eta, gainera,



borondatezko markak lortu dituzten enpresek kudeaketa-sistema bat jarraitzen dute.

EB markaketaren ezarpenak honakoak eskatzen ditu:

- Arauzko betekizun berriak bereiztea eta sistemara sartzea.
- Prozedura berriak ezartzea: autokontrol-lanak definitu behar dira eta egiten diren lanak eta lortutako emaitzak erregistratu.
- Kontrol-planean entsegu berriak eta produktu bakoitzerako periodikotasunak barne hartzea.
- Neurketa- eta entsegu-ekipoen Kalibrazio Plana egokitzea.
- Fabrikako Produktzioaren Kontrolerako arduraduna bereiztea.

- Dokumentazio osagarria barne hartzea (adostasun-aitorpena, albarana, EB markaketaren informazio-fitxak)

Ondorioak:

EB markaketa ez da kalitate-marka bat, eta ez du ziurtatzen produktu batek kalitatezko bermerik edo prestazio gehigarriarik duenik. Lehenago esan dugun moduan, EB markaketak segurtasunarekin erlazioatutako gutxieneko baldintza batzuk betetzen direla ziurtatzen du eta produktua merkaturatzeko nahitaez bete beharreko lege-betekizun bat da gainera.

Azpitarratzekoa da EB markaketa fabrikatzaileak berak jartzen duela, bere erantzukizunpean, behin produktuari esleitutako ebaluazio-sistemak eskatzen dituen zereginak bete eta gero; alegia, ez dute ez admi-

nistrazioak ez aukeratutako erakundeek ematen.

Bestalde, borondatezko kalitate-marka bat edukitzeak ez du EB markaketa edukitzeko betebeharretik salbuesten enpresa bat.

Amaitzeko, EB markaketara lotutako produktuen zerrendak daude, baina ez da EB markaketa duten fabrikatzaileen produktuen araberako zerrendarik osatuko, izan ere, produktu baten gainean EB markaketa indarrean sartzen den unetik aurrera, produktu hori fabrikatzen duten enpresa guztiek nahitaez lortu eta erakutsi behar dute EB markaketa.

Eraikal-en web-orrian:

(www.ej-gv.net/eraikal), berrien atalean, erabiltzaileen eskura jarri dira "EB markaketa eraikuntzaren sektorean" izeneko jardunaldiei buruzko txostenak.

2. Eraikal zortzi deialdiko laguntzak erabaki dira

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Eraikal Programaren 2006ko deialdian (Eraikal Zortzi) aurkeztutako proposamenetarako laguntzak erabaki berri ditu. Aipatu laguntzen deialdia Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2006ko irailaren 26an egin zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren enpresen esparruan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea eta hobetzea, iraunkortasuna sustatzea eta berrikuntza laguntzea dira aipatu laguntzen helburu nagusiak.

Deialdi honetan, orain arteko kudeaketa eta etengabeko hobekuntza sustatzeko helbueruz gain, sektoreko berrikuntza eta iraun-

kortasuna indartzea eta sustatzea bilatzen du Eraikal Programak.

Esanak esan, aurtengo deialdian 1.000.000 euro banatuko dira laguntza moduan eta oraingoan Ekodiseinuaren araua ezartzeko 22 proiektuk, gida bat garatzeko proiektu batek eta 166.002 UNE arauaren araberako software baten proiektuak (Eraikal-era sartutako agente berriak, TEKNIKER, Teknologia aplikatuaren ikerketa-zentroak aurkeztua) jasoko dute laguntza.

Eraikalen proiektu "tradizionalez" gain, hala nola kudeaketa-sistemen ezarpena eta EFQM bikaintasun-ereduaren garapena,

deialdi berri honetan etengabeko hobekuntzarekin eta bikaintasunarekin erlazioatutako proiektu ugari aurkeztu dira, besteak beste 5Sen ezarpena, Aginte Koadro Integralaren garapena edo kostuen kalkularen hobekuntza.

Era berean, nabarmen geratu da sektorea kontzientziatzeko eta sentibilizatzeko beharra, kontuan hartuta sektoreko prebentzioarekin, lege- eta araudi-mailako aldaketa berriekin eta abar erlazioatutako proiektu ugari aurkeztu direla.

Ondorengo taulan deialdi berri honetan onartu diren proiektuak aurkeztu dira:

| ERAKUNDEA | PROIEKTUAK |
|---------------|---|
| ADC | - 20 enpresatan K21 sistema ezartzea eta ziurtatzea. - Eraikuntzako segurtasuna hobetzeko neurriak hedatzea eta motibatzea. |
| AEIEB | - 3 enpresatan ISO 9001 ezartzeko proiektua. - 2 enpresatan ISO 9001 eta ISO 14001 ezartzeko integrazio-proiektua. - Enpresa batean EFQM Bikaintasun Eredua garatzea. - Sustapen- eta hedapen-jardunaldiak. |
| AFONVI | - Enpresen EFQM Bikaintasun Eredua elkartean ezartzea eta garatzea. - 12 mikroenpresatan K21 sistema ezartzea eta ziurtatzea. - 2 mikroenpresatan ISO 9001 ezartzea. - Mikroenpresa batean ISO 14001 ezartzea. - Kudeaketa eta etengabeko hobekuntza sustatzea eta hedatzea. - 12 mikroenpresatan 5S ezartzea. |
| ASCOBI | - 39 enpresatan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak, Ingurumena kudeatzekoak eta PRL ezartzea. - 5 enpresatan EFQM Bikaintasun Eredua ezartzea. - 5 enpresatan Aginte Koadro Integralaren (AKI) bidez estrategia zabaltzea. - 5 enpresatan eskumenen kudeaketa egitea eta lanaren ebaluazioa egitea. - 5 enpresatan 5S ezartzea. - PRL inguruko sentibilizazio-programa. |

| ERAKUNDEA | PROIEKTUAK |
|-----------------|---|
| ASCONGI | <ul style="list-style-type: none"> - 2 enpresatan ISO 9001 ezartzea. - 5 enpresatan OHSAS 18001 ezartzea. - Enpresa batean ISO 14001 eta OHSAS 18001 ezartzea. - 6 enpresatan CMIren prestakuntza-ekintza programa garatzea. - 5 enpresatan EFQM Bikaintasun Eredua ezartzea. |
| COAATBI | <ul style="list-style-type: none"> - 4 enpresa kolegiatutan ISO 9001:2000 kalitatea kudeatzeko sistema ezartzea. - 10 enpresatan ISO 9011 araberako KKS bat ezartzea, txosten eta peritazio judizialak lantzeko helburuarekin. - Teknikariei, eraikuntza-lanetan Segurtasun eta Osasun Koordinatzaile izateko, trebakuntza teknikoa emateko prestakuntza-ekintzak. - Kalitateko plataforma digital bat diseinatzea eta martxan jartzea. |
| COAATG | <ul style="list-style-type: none"> - Eraikuntza-lanetan arriskuak prebenitzeko prestakuntza-ekintza. |
| COAVN | <ul style="list-style-type: none"> - 10 arkitektura-estudiotan ISO 9001:2000 araua ezartzea. - Kudeaketari eta etengabeko hobekuntzari buruzko prestakuntza eta edukien hedapena. - Enpresa batean Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integratuak, Ingurumen Sistema Integratuak, PRL eta Ekodiseinua ezartzea. - Enpresa batean Ingurumena Kudeatzeko Sistema Integratuak, Ingurumen Sistemak eta Ekodiseinua ezartzea. - Enpresa batean Kalitatea Kudeatzeko Sistema Integratuak eta Ekodiseinua ezartzea. - Enpresa batean Ingurumena Kudeatzeko Sistema Integratuak eta Ekodiseinua ezartzea. |
| INSTAGI | <ul style="list-style-type: none"> - 12 mikroenpresatan K21 sistemak ezartzea eta ziurtatzea. - 6 enpresatan ISO 9001:2000 ezartzea eta ziurtatzea. - 6 enpresatan 5S ezartzea. - 6 enpresatan kostuak hobeto kalkulatzeko tresna bat ezartzea. - Hedapen-ekintzak. - 18 lagun PRLn prestatzeko ekintzak. |
| LABEIN | <ul style="list-style-type: none"> - Bizitegi-eraikuntzaren sektoreak EAEn izandako bilakaeraren jarraipena. - Informazio teknologikoko zerbitzu aurreratuen bidez sektorean berrikuntza sustatzea. - Sustapena eta hedapena. |
| TEKNIKER | <ul style="list-style-type: none"> - Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetarako berrikuntza kudeatzeko gida integral bat sortzea eta 166.002 UNE arauaren arabera software bat garatzea. |
| VISESA | <ul style="list-style-type: none"> - 6 estudiotan kudeaketa-sistema integratuak ezartzea. - Visesan eta Orubiden Ekodiseinuaren diseinua eta garapena egiteko prozesuaren gaineko ingurumen-kudeaketako sistema bat ezartzea. - 16 arkitektura-estudiotan EKODISEINUAREN araua ezartzea. - Orubiden eta Alokabiden EFQM ereduaren araberako lehen autoebaluazioa egitea. - "Prozesuen araberako kudeaketa arkitektura-estudioetan" gida lantzea eta ezagutzera ematea. |

3. Jardunaldiak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea



2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa eta EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, aldaketa handia ekarri du Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide-esparrura, eta aipatu legearen konplexutasun teknikoa dela eta zailtasunak egon dira berau aplikatzeko orduan. Egoera berria aztertzeke eta argitzeko, joan den martxoaren 29an SEA-UNECA erakundeak aipatu legeari buruzko jardunaldi teknikoak antolatu zituen, Eraikal Programaren esparruan. Jardunaldiak Gasteizko Gran Hotel Lakua hotelean izan ziren.

Aipatutako jardunaldietan Joanes Labayen eta Maite Gastelu Cuatrecasas-eko aboka-

tuek parte hartu zuten eta ondoren adierazitako gaiak aztertu zituzten:

- Lurzoruaren sailkapena eta araubide juridikoa: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru ez-urbanizagarria.
- Egitura-antolamendua eta antolamendu xehakaturia. Plan-motak.
- Estandarrak eta erreserbak: eraikigarritasun-mugak, estandarrak eta babes publikoko etxebizitzak.
- Hirigintza-kudeaketa: jarduketa-sistemak: lankidetzak, desjabetzea eta hirigintza-agentea. Estatuko lurzoruari buruzko legearen proiektua, 2007rako aurreikusia: Euskal

4. Birgaitze-obretan eraginkortasun energetikoak duen garrantziaren inguruko hausnarketa-lantegiaren emaitzak

Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko 2002/91/CE Zuzentarauak erakusten digu Europar Batasunak, energiaren kontsumoa eta CO2 emisioak murrizteko eta, bide batez, Kiotoko Protokoloaren konpromisoa betetzeko, landu duen estrategia.

Gaur egungo eraikinen eragin energetikoa eta ingurumenaren gaineko eragina dira energiaren eskariaren portzentaje altu baten eragile zuzenak (berokuntza, argiztapena, aire egokitua, etab.), eta, ondorioz, bertan sortzen da gaur egungo eskari energetikoaren portzentaje altu bat, eta, era berean, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioaren indize altuen erantzule nagusiak dira.

Gaur egun eraikita dauden eraikinen kopuruak nabarmenki gaintitzen du eraikuntza berriko eraikinen kopurua eta, ondorioz, gaur egungo eraginkortasunaren eta aurrezpen energetikoaren politika berriak kontuan hartuta, potentzial handiko esparru baten aurrean gaudela esan daiteke. Zentzu horretan, funtsezkoa da gure etxebizitza, bulego, eskola, ospitale eta abarren portaera energetikoa hobetzeko jarduerak garatzea.

Aipatu Zuzentarauaren arabera, birgaitze-prozesuetan lehenetsuna eman behar zaio eraginkortasun energetikoa hobetzeko balioko duten neurriak hartzeko beharrari.

Eraikinen ingurukariaren diseinua (klima-ekin batera), erabakigarria da konfort termikoa ziurtatzen duten baldintza egokiak lortzeko beharrezkoa den energia-eskaria ezagutzeko. Horrez gain, instalazio termikoek ere (tradizionalek zein energia berriztagarrietan oinarritutakoek) zeresan handia dute erabiltzailearen amaierako kontsumo energetikoa minimizatzen duten orduan.

Gaur egungo eraikinen parkea birgaitzeko hainbat oztopo (ekonomikoak, sozialak, etab.) gaintitu behar dira nahitaez. Sekto-reen lana izango da energiaren ikuspegitik eraginkorra izango den birgaitzea sustatzeko aukerak eta estrategia egokiak behar den bezala sustatzea.


Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ikuspegitik birgaitze-prozesuak susta ditzaketen erronkak, aukerak eta ekintza posibleak ezagutzeko, Surbisa sozietateak (Birgaitzerako Bilboko Hirigintza Sozietatea) eta Tecnalia Korporazio Teknologikoak, Poliuretano Gogorren Industria Elkarte-

rekin batera (IPUR), eta BUILD-NOVA Europako proiektuaren Sareak eta Eraikal programak lagunduta, otsailaren 21ean "Birgaitzea Eraginkortasun Energetikoaren ikuspegitik" hausnarketa-lantegia antolatu zuten Bilbon.

Aipatutako jardunaldietan birgaitze-prozesuetan nahastuta dauden eta erabakiak hartzeko orduan zeresan handia duten agenteek parte hartu zuten. Horrela, esparru publikoko profesionalak parte hartu zuten –Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, EVE-CADEM, Surbisa, Kataluniako Generalitatea, Zaragozako Birgaitze Udal Sozietatea-, bai eta esparru pribatukoek ere –Eptisa-Cinsa, Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola, Tecnalia eta IPUR-.

Lantegian 50 pertsonak parte hartu zuten, bi gai nagusiren inguruan iritzia emateko. Parte-hartzaile guztiak egin zituzten ekarpen interesgarriak, izan ere, alde aurretik egindako aurkezpenei esker elkarriketarako oinarri sendoa osatu zen eta parte-hartzaileek informazioa landuta zuten.

Lehenengo txandan, "Zer erronka eta aukera dakartza gaur egungo etxebizitzaren parkearen birgaitzeak? galderaren inguruan ideia asko aurkeztu ziren; batzuk praktikoagoak eta besteak zehatzagoak, eta, esan bezala, alderdi ugari ukitu ziren, hala nola araudiak, I+G, ezagutza, kontzientziak, etab.



Bigarren txandan, zer egin daiteke erronka horiei batera erantzuteko? galdera egitean, erronka eta aukera berriei aurre egiteko ekintzak bereizi ziren, eta horien artean aipa daitezke:

- Ikerketa sustatzea.




- Hezkuntza-ekintzak, kontzientziak-ekintzak, prestakuntza-ekintzak, etab.
- Informazioa bateratzeko administrazioen artean zehar-bitartekoak sortzea.
- Araudi zorrotzago baten arabera indartzea.
- Eraikin iraunkorrak diseinatzea.
- Energiaren eraginkortasuna ziurtatuko duten estandarrak diseinatzea eta lantzea.

Erronka eta aukera ugari azpimarratu ziren, bai eta martxan jar daitezkeen ekintza asko ere. Horrela, parte-hartzaileek, lantegian

lortutako emaitzak oinarrian hartuta, 7. Esparru Programaren barruan ekimen desberdinak garatu ahal izango dituzte; era berean, emaitza horiek oinarrian hartuta, programa publikoak berriro diseinatu eta hobetuko dira.

5. Prozesuen araberako kudeaketa arkitektura-estudioetan



Joan den azaroaren 16an, Kalitatearen Europako Asteantolatuak ekimenen barruan, VISESA, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA, sozietateak "Prozesuen

araberako kudeaketa arkitektura-estudioetan" gida aurkeztu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaieko Sailak garatzen duen Eraikal Programaren esparruan argitaratu, landu eta zabaldu da aipatu gida eta arkitektura-estudioei Kalitatea, Laneko Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumena Kudeatzeko Sistema baliagarri bat eskaintzea bilatzen du.

Aipatu sistema diseinatzeko ISO 9001, OHSAS 18001 eta ISO 14001 arauak hartu dira kontuan. Hiru urteko lana behar izan da gida osatzeko eta 16 arkitektura-estudiok parte hartu dute.

Gidaren helburua da lanean hobekuntzak egin nahi dituzten arkitektura-estudioei laguntza-tresna bat eskaintzea. Era berean, xede horrekin lan egiten duten eta ahalegintzen diren estudioen lana aitorzeko enpresa-ziurtapenak sortu dira.

Aipatu argitalpena eskuratu nahi duen erakunde orok honako helbide honetan lortuko du:

VISESA

Orio kalea, 1- 3

01010 Vitoria-Gazteiz

Tel.: 945 21 40 50

Faxa: 945 06 84 40

E-mail: egoitza@visesa.com

6. Eraikuntza-sektoreko mikroenpresetarako gida ekonomiko-finantzarioa

Ba al dakizu zenbat diru irabazten duen zure enpresak eta zergatik? Ba al dakizu zenbat diru duzun berriro inbertitzeko, bazkideen artean banatzeko edo zorrak kitatzeko? Ba al dakizu zenbat diru gastatzen duzun eta zertan gastatzen duzun?

Zure enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa hobetu nahi baduzu galdera horiei guztiei erantzutea komeni zaizu. Horretan laguntzeko, Eraikal-ek "Eraikuntza-sektoreko mikroenpresetarako gida ekonomiko-finantzario" bat landu du. **2007ko maiatzean** jarriko da aipatu gida sektorearen esku, eta, eraikuntza-sektoreko mikroenpresentzat, Urteko Kontuak (Balantzea, Galeren eta Irabazien Kontuak eta Memoria) eta Diruzaintza Plana interpre-

tatzeko lagungarria izatea du helburu. Besteak beste, honako alderdi hauek ezagutzeko laguntza ematen du gidak:

- Zure enpresak gastatzen duen dirua.
- Irabazien jatorria.
- Berriro inbertitzeko, bazkideen artean banatzeko edo zorrak kitatzeko duzun dirua.
- Zenbat diru gastatzen duzun eta zertan egiten duzun.
- Etorkizuneko planak eta aurreikuspenak aurrera ateratzeko aukerak.

Orain aurkezten dizuegun gidak ez du Urteko Kontuak nola egin behar diren erakustea

bilatzen, ez eta kontu horien azterketa dinamikoa egitea ere –alegia, hainbat urtetako kontuak alderatzea, izandako bilakaera ezagutzeko-.

Gida honek eraikuntza-sektoreko mikroenpresa bateko langileei edota zuzendaritza-karguei azterketa eta plangintza finantzarioa ezagutzen lagundu nahi die, izan ere, sarritan beste langile batzuen esku uzten dira horrelakoak, zuzendaritza-karguetan jarduten dutenek negozioaren produktioarekin eta eguneroko kudeaketarekin erlazioatutako funtzioak betetzen baitituzte, eta ez dute ezagutzen negozioaren azterketa eta plangintza finantzarioa.

Itaun postontzia



eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaille, Enpresa eta Helbidea adierazten.